

# Lankidetza feministarantz

2021eko abenduaren 20an,  
16:00etatik 19:00etara

Kale Nagusia 85. Areto Nagusia. Bilbo

## Helburua:

Garapenerako lankidetzaren sektorean urte asko daramatzagu genero ekitatea lortzeko politika eta praktiketan aurrera egiten. Jardunaldi hauen bidez, beste urrats bat egin eta lankidetza feministaren kontzeptura hurbildu nahi gara, asmo handiagoko helburuekin eta begirada irekiago eta inklusiboago batekin, zeinak feminismoa politika publikoen ardatz gisa aldarrikatzen duen. Kontzeptu hori garapenerako lankidetzan nola txertatu aztertuko dugu, baita zeintzuk diren haren inplikazioak eta erronkak; eta hori guztia gai horretan adituak diren emakumeen eskutik. Emakume horiek, hainbat espaziotatik, publikoak eta GGKE-etakoak, lankidetza feminista eraikitzeko urrats sendoak egiten ari dira.

**Hartzaileak:** GGKEak eta interesa duten gainerako pertsonak.

**Izen ematea:** abenduaren 18ra arte esteka honetan: <https://bit.ly/31GdaLW>

## Egitaraua

Presentación de las Jornadas

**La cooperación feminista como un nuevo sistema de cooperación para transformar el mundo. Mercedes Ruiz-Gimenez Aguilar.**

(Lankidetza feminista mundua eraldatzeko lankidetza-sistema berri gisa)

Mahai ingurua. **Clara Murguialday Martínez**ek moderatuta.

**Marina Estrellas Fiol**, Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusia, Balearretako Gobernu.

**Eveling Carrazco López**, feminista dekoloniala eta ikertzailea.

**Verónica Castañeda Blandón**, GGKE-en estatuko koordinatzailea.

**Estrella Ramil Paz**, ekintzaile feminista eta feminismoetan, generoan eta nazioarteko lankidetzan aholkularia

Antolatzaileak:

